

KOSTUEN EGITURA

Proiektua aurrera ateratzeko inbertsio handi bat egin izan behar dugu. Hasteko, gure ideia garatu ahal izateko pisu bat alkilatu dugu Donostian. Bertan, lankideek lan egiteko gune aproposa sortu dugu eta gure zerbitzuak eskaini ahal izateko leku zehatz eta egokia.

Noski, zerbitzu egokia emateko eta lankideek bere lana egin ahal izateko material egokian inbertitu izan behar dugu. Horretarako, lankideek eta bezeroei arreta on bat emateko altzari egokietan inbertitu dugu. Hainbat mahai eta aulki erosi ditugu, lankideek lan egiteko eta bezeroek haien txanda itxaroteko. Horretaz gain, lankide bakoitzarentzat ordenagailu bat erosi dugu, zerbitzua eskatzen ari den bezeroa egoki artatzeko. Ordenagailu bakoitzarekin teklatu eta arratoi bat egoki eta azkarrago lan egiteko ere. Gainera, hainbat inpresora inprimatu beharreko dokumentuak inprimatzeko eta horrekin batera, tinta hauek bere funtzioa betetzeko. Teknologiaz aparte, boligrafoak, paperezko orriak, arkatzak, karpetak... inbertitu dugu ere.

Bezero asko, bulegora gerturatzen dira, baina, beste asko telefono dei baten bidez kontaktatzen dute gurekin. Horretarako, ezinbestekoa da bulegoan gutxienez bi telefono edukitzea deiak hartu ahal izateko eta online bidez arreta nahi duten bezeroei hartaratzeko.

Presentzialki eta telefono bidez kontaktatzen dutenez aparte, beste askok webaren bidez ezagutzen gaituzte, horretarako web batean inbertitu izan behar dugu. Inbertsio horren barruan, programatzaile baten zerbitzuak ordaindu behar izan ditugu, dominio bat ordaindu eta mantenimenudak balio duen dirua ordaindu. Gainera, bezeroekin harremanetaz gain, publizitate gune garrantzitsua da, jende berriak gure proiektua ezagutzeko eta ikusgarritasuna askoz ere handiagoa izateko.

Zerbitzuaren produktuei eta beharrezko materialetan ere inbertsio handi bat egin dugu. Hasteko, aiton-amonek erabiliko duten bozgoragailuan inbertitu dugu. Hainbat bozgoragailu erosi ditugu, eta haiekin tekniko batek beharrezko aldaketak egin eta gauzak jarri dizkio gure proiekturako beharko duten funtzioa betetzeko. Horrela, hainbat bozgoragailu erosi eta egokitu dira, stocka edukitzeko. Bozgoragailuaz gain, aiton - amona bakoitzak eskatuko duen zerbitzurako (etxea garbitzea, erosketak egitea, konpainia egitea...) desplazatuko diren pertsonentzat, hainbat bizikleta eta motor erosi ditugu, lekuz batetik bestera azkarrago mugitzeko eta zerbitzu azkarrago bat eskaintzeko.

| Materiala / Produktua | Kopurua | Gastuak guztira |
|-------------------------|------------------------|-----------------|
| Bulegoko alokairua | 1 | 200€/hilean |
| Biltegiaren alokairua | 1 | 450€/hilean |
| Mahaia | 5 | 790€ |
| Aulkia | 7 | 174,3€ |
| Ordenagailua | 5 | 580€ |
| Teklatua | 5 | 60€ |
| Arratoia | 5 | 60€ |
| Inpresora | 3 | 303€ |
| Tinta | 3 | 33€ |
| Paperezko orriak | 5 pakete | 165€ |
| Boligrafoak | 1 pakete(50 boligrafo) | 12€ |
| Arkatzak | 30 | 6€ |
| Karpetak | 10 | 13€ |
| Telefonoak | 5 | 135€ |
| Webaren programatzailea | 1 | 4000€ |
| Webaren dominioa | 1 | 220€ |
| Bozgorailua | 30 | 50€/u |

PROIEKTUAK IRAUTEN DUEN BITARTEKO EGOERA EKONOMIKOA

Proiektu baten barruan, inbertsioak, diru-finantzaketak, soldatak, gastuak... Eguneroko gauzak dira. Askotan arazo bihurtzen direnak, hile bukaeran soldatak ordaintzeko orduan, inbertsio bat behar denean, ustekabekoak gertatzen direnean... Horregatik garrantzitsua da egoera ekonomiko on bat izatea.

Egoera ekonomiko on eta egonkor bat edukitzea batzuetan zaila da, zaila da oreka bat mantentzea, hileroko ustekabekoak eta gastuak desberdinak daudelako. Hau ekiditeko garrantzitsua da aurreztutako dirua edukitzea beti, arazoak agertzen direnean irtenbide azkar eta on bat edukitzeko.

Proiektuak irauten duen bitartean, hilabete guztietan zenbait gastu finko edukiko ditugu:

| | | |
|----------------------------------|---|-------|
| Webaren mantenimendua | 1 | 75€ |
| Bulego eta biltegiaren alokairua | 1 | 650€ |
| Soldata Irati | 1 | 1200€ |
| Soldata Karrera | 1 | 1200€ |
| Soldata Mirari | 1 | 1200€ |
| Soldata Olaia | 1 | 1200€ |
| Soldata Ane | 1 | 1200€ |